



GAUZURIA NOCHEBLANCA

bilbo - 2012ko ekainaren 16a
bilbao - 16 de junio de 2012

PRENTSA TXOSTENA
DOSSIER DE PRENSA



GAUZURIA NOCHEBLANCA

bilbo - 2012ko ekainaren 16a

bilbao - 16 de junio de 2012

Antolatzailea:
Organiza:



Babeslea:
Patrocina:



Laguntzaileak:
Con la colaboración de:

**BILBOKO ARTE
EDERREN MUSEOA
MUSEO DE BELLAS
ARTES DE BILBAO**



GuggenheimBILBAO



hó
Alhóndiga Bilbao

EGITARRUA

01. Plazako aterkiak

Alhóndiga Bilbao - Arrikibar plaza, 4

Emanaldiak: 22:00 eta 00:00

02. Goieskoak (Granados museoan)

Arte Ederren Museoa - Museoaren plaza, 2

20:30etik 02:00etara

03. Murgil zaitez!

Bilboko Itsasadarra Itsas Museoa

20:30etik 23:30era

04. Habanerak

Itsas Museoko kaia

20:30etik 23:30era

A) Cavall Bernat - B) Els Pescadors de L'Escala

05. Jazz kontzertua

Itsas Museoko kaia

00:00

Pee Wee Ellis Funky Assembly, TY artista gonbidatuarekin

06. Gabon, Piazzolla (Tango museoan)

Bilboko Guggenheim Museoa - Abandoibarra etorbidea, 2

22:00etatik 02:00etara

Quinteto Porteño de Marcelo Mercadante - Cuarteto Milonguero Fabián Carbone

07. Sustraietatik (Txalap.art)

Deustuko Unibertsitatea - Unibertsitateen etorbidea, 24

20:30etik 02:00etara

Kirkit, Txan magoa, Mikel Markez, Napoka Iria eta Ertza Antzerki Dantza

08. Umorea eta Gastronomía

Bidebarrietako liburutegi zentrala - Bidebarrieta kalea, 4

Taldeko elkarrizketa - 21:00

Antzerki ikuskizuna - Emanaldiak: 23:00 eta 00:30

09. Góngora eta Lope de Vegaren poesia, lauteen akonpainamenduaz - Errezitatzaila: Natalia Dicenta

Euskal Museoa - Miguel de Unamuno plaza, 4

Emanaldiak: 20:45, 21:45, 23:00 eta 00:00

10. Bilbo kantuz eta doinuz

Santiago katedrala (ataria) - Santiago plaza, 1

Bilboko Akordeoi Orkestra Sinfonikoa - 20:30

Bilboko Koral Elkartearen Kontserbatorioko Abesbatza eta Euskeria Abesbatza - 22:00

Iralabarriko San Antonio Abesbatza - 23:45

11. Eraikinak argizatzea

22:30etik 02:00etara

Arrikibar plaza, CRAI eraikina, Deustuko Unibertsitatea, Bilboko udaletxea eta Arriaga Antzokia

12. Kaleko animazioa

Alde Zaharra

22:30etik 02:00etara

La Banda de la María - Bandarra Street Orkestra

PROGRAMA

01. Los Paraguas de la Plaza

Alhóndiga Bilbao - Plaza Arriquirar 4

Pases: 22:00 h y 00:00 h

02. Goyescas (Granados en el Museo)

Museo de Bellas Artes - Plaza del Museo 2

De 20:30 h a 2:00 h

03. ¡Sumérgete!

Museo Marítimo Ría de Bilbao - Muelle Ramón de la Sota 1

De 20:30 h a 23:30 h

04. Habaneras

Muelle del Museo Marítimo

De 20:30 h a 23:30 h

A) Cavall Bernat - B) Els Pescadors de L'Escala

05. Concierto de Jazz

Muelle del Museo Marítimo

00:00 h

Pee Wee Ellis Funky Assembly con el artista invitado TY

06. Buenas noches, Piazzolla (Tango en el Museo)

Museo Guggenheim Bilbao - Avenida Abandoibarra 2

De 22:00 h a 02:00 h

Quinteto Porteño de Marcelo Mercadante - Cuarteto Milonguero Fabián Carbone

07. Desde las Raíces (Txalap.art)

Universidad de Deusto - Avenida de las Universidades 24

De 20:30 h a 02:00 h

Kirkit, El Mago Txan, Mikel Markez, Napoka Iria y Ertza Teatro Dantza

08. Humor y Gastronomía

Biblioteca Central de Bidebarrieta - Calle Bidebarrieta 4

Entrevista colectiva - 21:00 h

Espectáculo teatral - Actuaciones: 23:00 h y 00:30 h

09. Poesía de Góngora y Lope de Vega con acompañamiento de laúdes - Recita Natalia Dicenta

Museo Vasco - Plaza Miguel de Unamuno 4

Actuaciones: 20:45 h, 21:45 h, 23:00 h y 00:00 h

10. Bilbao canta y suena

Catedral de Santiago (Pórtico) - Plaza de Santiago 1

Orquesta Sinfónica de Acordeones de Bilbao - 20:30 h

Coro del Conservatorio y Coro Euskaria de la Sociedad Coral de Bilbao - 22:00 h

Coral San Antonio de Iralabarri - 23:45 h

11. Iluminaciones arquitecturales

De 22:30 h a 02:00 h

Plaza Arriquirar, Edificio CRAI, Universidad de Deusto, Ayuntamiento de Bilbao y Teatro Arriaga

12. Animación de Calle

Casco Viejo

De 22:30 h a 02:00 h

La Banda de la María - La Bandarra Street Orkestra

01

Plazako aterkiak

Alhóndiga Bilbao - Arrikibar plaza, 4

Emanaldiak: 22:00 eta 00:00

José Ibarrola, zuzendaritza artistikoa

Maitane Zalduegui, koreografia


Javier Letamendia "Leta", musika

Innevento, ekoizpena

Ikuskizun hau bata bestearen gainean jarritako hiru mailak osatzen dute. Lehenengo maila, guztia betetzen duena, irudian oinarritzen da. Gure buruen gainean hainbat altueratan zintzilikaturiko hamarnaka aterkirekin osatzen den instalazio artistikoa da. Aterkiek atari guztia hartuko dute, metafora bisuala sortuz. Esekita dagoen aterki multzoaz gain, aterki batzuk modu estrategikoan kokatuko dira plaza barruko eraikinetako hormetan, proiektzio pantaila gisa erabiltzeko. *Bideo mappinga* itsasoaren, euriaren, zeruaren, hodeien... irudiekin. Irudi horiek atariko espazioa betetzen joango dira etengabe, gure irudi poetikoa berreraikitze beharrezkoa den giroa sortu arte.

Bigarren maila mugimenduan oinarritzen da. Hiru emakume dantzarik interpretatzen duten dantza koreografia batek zenbait egoera emozional eta narratibo antzektuko ditu eta *flashmob* batekin bukatuko da: jendea izango da, beraz, bere parte hartzearekin amaiera emango diona.

Eta hirugarren mailak zuzeneko musika du oinarri, guztia biltzen duen osagai gisa. Musikak sortuko du giro egokia kontzertu bateko ikusle zein bidaia oniriko bateko protagonista senti gaitezen.



01

Los Paraguas de la Plaza

Alhóndiga Bilbao - Plaza Arriquirar 4

Pases: 22:00 h y 00:00 h

José Ibarrola, dirección artística

Maitane Zalduegui, coreografía


Javier Letamendia "Leta", música

Innevento, producción

Es un espectáculo compuesto de tres niveles superpuestos. Un primer nivel, que lo empapa todo, basado en la imagen. Una instalación artística con decenas de paraguas volados sobre nuestras cabezas a diferentes alturas y que ocupan todo el atrio creando una metáfora visual. Además del conjunto de paraguas suspendidos, algunos paraguas estratégicamente situados en las paredes de los edificios interiores de la plaza nos servirán como pantallas de proyección. *Video mapping* con imágenes de mar, de lluvia, de cielos, de nubes..., que irán poblando ininterrumpidamente el espacio del atrio hasta crear la atmósfera necesaria para reconstruir nuestra imagen poética.

Un segundo nivel basado en el movimiento, con una coreografía de danza interpretada por tres bailarinas, que recorre diferentes estados emocionales y narrativos y que culmina con una *flashmob* en la que el público pondrá el broche final con su participación.

Y un tercer nivel con la música en directo como elemento aglutinador, que recreará el ambiente preciso como para sentirnos tanto espectadores de un concierto, como protagonistas de un viaje onírico.



02

Goieskoak (Granados museoan)

Arte Ederren Museoa - Museoaren plaza, 2

20:30etik 02:00etara

Arte Ederren Museoak aldi baterako erakusketa hau aurkezten du: "Goya. Asmatutako estanpak: Kapritxoak, Hondamendiak, Tauromakia eta Burugabekeriak".

Erakusketak Francisco de Goyaren (Fuendetodos, Zaragoza, 1764 - Bordele, Frantzia, 1828) erreferentziazko lau grabatu serie erakutsiko ditu, Bilboko Arte Ederren Museoaren bildumak duen paperean eginiko lanen fondo aberatsean gordetzen direnak: *Kapritxoak* (80), *Gerraren hondamendiak* (82), *Tauromakia* (40) eta *Burugabekeriak* (22).

Testuinguru horretan, erakusketara bisitan datozenek Goieskoen musika konposizioen interpretazioak eta Goyaren obrak iradokiriko Enrique Granadosen beste konposizio batzuk aurkituko dituzte museoko aretoetan, Granados Marshall Akademiako aukeraturiko artistek interpretatuak.

Akademia 1901ean sortu zuen Enrique Granadosek berak, eta Alicia de Larrocha da bere ibilbidean zehar izan dituen zuzendarietako bat. Marta Zabaleta piano-jole donostiarra da gaur egungo zuzendaria.

Goieskoak 1

Teresa Alberro, sopranoa

Erik García, pianoa

Emanaldiak: 20:30 - 22:00 - 23:30 - 01:00

Rocío Martínez, sopranoa

Yoko Suzuki, pianoa

Emanaldiak: 21:00 - 22:30 - 00:30

Goieskoak 2

Alexander Sánchez, gitarra

Emanaldiak: 20:30 - 22:00 - 23:30 - 01:00

Juan Ignacio Rueda Robles, gitarra

Emanaldiak: 21:15 - 22:45 - 00:15

Goieskoak 3

Ayako Fujiki, pianoa

Emanaldiak: 20:30 - 22:00 - 00:00

Antonio Oyarzábal, pianoa

Emanaldiak: 21:00 - 23:00 - 01:00



02

Goyescas (Granados en el Museo)

Museo de Bellas Artes - Plaza del Museo 2

De 20:30 h a 2:00 h



El Museo de Bellas Artes presenta la exposición temporal “Goya. Estampas de invención: Caprichos, Desastres, Tauromaquia y Disparates”. La exposición mostrará las cuatro series de grabados referenciales de Francisco de Goya (Fuendetodos, Zaragoza, 1746–Burdeos, Francia, 1828) que se conservan en el extenso fondo de obra sobre papel perteneciente a la colección del Museo de Bellas Artes de Bilbao: *Caprichos* (80), *Desastres de la Guerra* (82), *Tauromaquia* (40) y *Disparates* (22).

En ese marco, el público irá encontrando en diversas salas del Museo piezas musicales de *Goyescas* y otras composiciones de

Enrique Granados inspiradas por la obra de Goya, e interpretadas por artistas seleccionados por la Academia Granados Marshall.

La Academia fue fundada en 1901 por el propio Enrique Granados, y entre sus directores históricos cuenta con Alicia de Larrocha. En la actualidad su directora es la pianista donostiarra Marta Zabaleta.

Goyescas 1

Teresa Alberro, soprano

Erik García, piano

Actuaciones: 20:30 h – 22:00h – 23:30h – 01:00h

Rocío Martínez, soprano

Yoko Suzuki, piano

Actuaciones: 21:00 h – 22:30 h – 00:30 h

Goyescas 2

Alexander Sánchez, guitarra

Actuaciones: 20:30 h – 22:00 h – 23:30 h – 01:00 h

Juan Ignacio Rueda Robles, guitarra

Actuaciones: 21:15 – 22:45 h – 00:15 h

Goyescas 3

Ayako Fujiki, piano

Actuaciones: 20:30 h – 22:00 h – 00:00 h

Marelene Becerra, piano

Actuaciones: 21:00 h – 23:00 h – 01:00 h



03

Murgil zaitez!

Bilboko Itsasadarra Itsas Museoa - Ramon de la Sota Kaia 1.

20:30etik 23:30era

Itsas Museoan irudikatu diren zoko ezkutuetan barna eramango gaituen antzerki eta musika bidezko ibilbidea da. Museoaren espazioan bizi diren urezko munduei buruzko fikzioa. Ibilbidea hasteko, harrera egingo digun musikari batek gidatuko gaitu bere doinuekin. Eta behin barruan garela, urdin misteriotsuaren sakontasunean barneraino murgiltzera gonbidatuko gaituen sirenaren dantza arin-hegalaritik hasi eta zuzenean emango diren habaneren malenkoniaz beteriko bertsioak entzun bitartean, bidean hor aurkituko ditugu kristalezko bolekin eginiko malabarismoen magia, kopen kontzertuak edota hipnotizatuko gaituzten xaboi burbuila liluragarriak. Musika eta mugimendua, museo guztia igaro eta haren barnea beste begi batzuekin ikusteko.



03

¡Sumérgete!

Museo Marítimo Ría de Bilbao - Muelle Ramón de la Sota 1

De 20:30 h a 23:30 h

Se trata de un recorrido teatral y musical por los entresijos imaginados del Museo Marítimo. Una ficción de los mundos acuáticos que habitan el espacio museístico. Un músico-anfitrión nos guiará con sus melodías para iniciar el camino. Y una vez dentro, desde una sirena que nos invita con su danza ingrátida a adentrarnos en la profundidad del misterioso azul hasta las melancólicas versiones de las habaneras que oiremos en directo, pasaremos por la magia de los malabarismos con bolas de cristal, los conciertos de copas o las hipnóticas pompas de jabón. Música y movimiento para recorrer y detenerse con una mirada diferente en el interior del Museo.



04

Habanerak

Itsas Museoko kaia

20:30etik 23:30era

A) Cavall Bernat - Emanaldiak: 20:30 eta 22:30

B) Els Pescadors de L'Escala - Emanaldiak: 21:30 eta 23:00

A) Cavall Bernat



Cavall Bernat taldea Platja d'Aron eratu zen 1965ean. Artean ez zitzaion inori burutik pasatu ere egingo gerora habanerak fenomeno bihurtu eta jendartean hainbestearaino zabalduko zirenik. Taldearen sortzailea Ortega Monasterio maisua izan zen, seme-alaben eta lagun batzuen laguntzarekin. Azken hamarkada hauetan, eta neurri batean Cavall Bernat taldeari esker, garai batean Costa Bravako herrietako taberna zuloetan kantatzen ziren habanera haiek ondo errotutako musika herrikoi mota izatera iritsi dira gaur egun.

B) Els Pescadors de L'Escala

2014an Els Pescadors de L'Escala taldeak bere 50. urtemuga ospatuko du. Bere-berea da akordeoi, kontrabaxu, gitarra eta ahotsak elkartuz lortzen duen musika konbinazioa, baita bakarlarien ahotsak talde koral indartsuekin elkartzeko modua ere. Haien errepertorioan leku nabarmena du habaneraren erritmo sentzual eta samurrak, izan ere, eta nola errotu den ikusita, bertako erritmo propioa dela esan dezakete. Zuzeneko sei mila emanaldi baino gehiago egin dituzte, eta hogeita bederatzi disko grabatu. Espainian den habanera talderik antzinako eta ezagunena da.



04

Habaneras

Muelle del Museo Marítimo

De 20:30 h a 23:30 h

A) Cavall Bernat - Actuaciones: 20:30 h y 22:30 h

B) Els Pescadors de L'Escala - Actuaciones: 21:30 h y 23:00 h

A) Cavall Bernat

El grupo Cavall Bernat se fundó en Platja d'Aro en 1965 cuando el fenómeno de las habaneras y su posterior y multitudinaria difusión eran algo impensable. Su fundador fue el maestro Ortega Monasterio, ayudado por sus hijos y algunos amigos. En el transcurso de estas décadas, y en parte gracias a Cavall Bernat, las habaneras han pasado de ser un canto de taberna de los pueblos de la Costa Brava a una forma de música popular de gran raigambre.

B) Els Pescadors de L'Escala



En 2014, Els Pescadors de l'Escala cumplirán su 50 aniversario. Su combinación musical de acordeón, contrabajo, guitarra y voces es típicamente propia, así como la manera de combinar las voces solistas con compactos conjuntos corales. En su repertorio tiene una gran importancia el ritmo sensual y tierno de la habanera, que dada su implantación pueden considerar como un ritmo propio. En su haber, más de seis mil actuaciones en directo y veintinueve grabaciones discográficas, siendo el grupo de habaneras más antiguo y conocido del país.



05

Jazz kontzertua

Itsas Museoko kaia

00:00

Pee Wee Ellis Funky Assembly, Ty artista gonbidatuarekin

Pee Wee Ellis



Pee Wee Ellis Floridan jaio zen 1941ean, baina musikari gisa Texasen hazi eta garatu zen. Irakasleen artean Chuck Mangione eta Sonny Rollins izan zituen, eta Sonny Payneren hirukoarekin egin zuen bere lehen lan serioa. Berme hori nahikoa izan zen James Brownen bere bandarako kontrata zezan, 1965ean. Brownen bandan sei hilabete eman ondoren eta berehala arrakasta bilakatu ziren kantak idatzi ondoren (adibidez, Cold Sweat, bandaren klasiko bihurtuko zena), Ellis Brownen taldearen musika zuzendari izatera pasatu zen. New Yorkeko CTI Records diskoetxeak kontratatu zuen 1970ean, etxe horretako moldatzaile eta musika zuzendari izateko. Han Esther Phillips, George Benson, Hank Crawford eta Jack McDuffentzat jardun zuen lanean.

1976an bakarkako bere lehen diskoa argitaratu eta San Frantziskora joan ondoren, han Dave Liebman saxofoi-jolearekin jazz fusioko boskotea osatu zuen aldi labur batez. Liebmanekin batera lan egin zuen gero, haren *Light'n Up Please!* diskoan (1977).

· Van Morrisonen musika zuzendari

1979an Van Morrisonek Ellis kontratatu zuen bere bandako musika zuzendari izateko. Bi artisten arteko elkarteak sei urte iraun zuen, eta bost album eman zituen. Bitartean, Ellisek birak eta grabazioak egin zituen JB Horns bandarekin, hots, James Brownen haize atalak gidatzen zuen bandarekin: Fred Wesley, Maceo Parker eta Ellis bera ziren bandako partaideak, eta Bobby Byrd (Brownen koristetako bat). 90. hamarkadan, Ellis Van Morrisonekin elkartu zen berriro beste album batzuk argitaratzeko. Hala ere, bakarka ere zenbait disko argitaratu zituen; disko horiek kritika oso onak jaso zituzten, eta Ellisen estiloaren adibide onak dira: funky-jazzaren, big band estiloko moldaketen eta jazz hutsaren arteko nahasketa. Aldi berean, Pee Wee Ellisek saioko musikari arrakastatsu gisa lan egin zuen, eta baita beste artista batzuentzako moldatzaile gisa ere, adibidez, Oumou Sangare eta Cheikh Lo kantari afrikarrentzat eta Cachafito eta Miguel 'Anga' Díaz kubatarrentzat.

· James Browni omenaldia

2000. urtetik hona, Pee Wee Ellisek bere izenean albumak argitaratzen jarraitzen du, eta talde propioekin nahiz lehen aipaturiko The JB's taldearekin edo beste artista batzuekin birak egiten. 2008tik proiektu berri bateko buru da. Proiektu horrek, 'Still Black, Still Proud - An African Tribute to James Brown' izenarekin, mundu osoko artistak biltzen ditu James Browni eta haren musikaren sustrai afrikarrei omenaldia egiteko.

Ipar Amerikako saxofoi-jolearen musika ibilbidea nabarmendu egin da azken urteotako musika mugimendu garrantzitsuenen artean, hasi jazzetik eta funkera iritsi arte, tartean bluesa eta batzuetan rocka ere igaroz. Musikaren munduan ia 40 urte egin ondoren, bere belaunaldiko saxofoi-jole txalotuenetakoa da oraindik ere.

05

Concierto de Jazz

Muelle del Museo Marítimo

00:00 h

Pee Wee Ellis Funky Assembly con el artista invitado Ty

Pee Wee Ellis

Pee Wee Ellis nació en Florida en 1941, aunque creció y se desarrolló musicalmente en Texas. Entre sus profesores estuvieron Chuck Mangione y Sonny Rollins, y realizó su primer trabajo serio con el trío de Sonny Payne, suficiente aval para que en 1965 fuera contratado por James Brown para su banda. Tras seis meses de estancia en la banda de Brown, y tras haber escrito éxitos inmediatos como *Cold Sweat*, que se convertiría en un clásico de la banda, Ellis se convirtió en el director musical del grupo de Brown.

En 1970 es contratado por el sello neoyorquino CTI Records como arreglista y director musical de la casa, y allí Ellis realiza trabajos para Esther Phillips, George Benson, Hank Crawford o Jack McDuff.

En 1976 edita su primer disco en solitario, y tras marcharse a San Francisco forma brevemente un quinteto de jazz fusion junto al saxofonista Dave Liebman, con quien colaboraría posteriormente en su disco de 1977 *Light'n Up Please!*

- Director musical de Van Morrison

En 1979 Ellis es contratado por Van Morrison como director musical de su banda. La asociación entre los dos artistas dura seis años y acaba cristalizando en cinco álbumes. Entretanto Ellis realiza giras y grabaciones con los JB Horns, la banda liderada por la sección de vientos de James Brown: Fred Wesley, Maceo Parker y el mismo Ellis y con Bobby Byrd, uno de los coristas de Brown. Durante la década de los 90 Ellis, vuelve a reunirse con Van Morrison para editar otra serie de álbumes, pero también publica una serie de discos en solitario que reciben muy buenas críticas y que resultan una buena muestra de su estilo, una mezcla de funky-jazz, arreglos para big band y puro jazz. Al mismo tiempo, Pee Wee Ellis trabaja músico de sesión de éxito y como arreglista para otros artistas, como los cantantes africanos Oumou Sangare y Cheikh Lo, o para los cubanos Cachaito y Miguel 'Anga' Díaz.

- Homenaje a James Brown

Desde el 2000 Pee Wee Ellis continúa editando álbumes bajo su nombre, efectuando giras regulares con grupos propios, con The JB's o con otros artistas. Desde 2008 lidera un nuevo proyecto que, bajo el nombre 'Still Black, Still Proud-An African Tribute to James Brown' reúne a artistas de todo el planeta para rendir homenaje a James Brown y a las raíces africanas de su música. La trayectoria musical del saxofonista norteamericano ha destacado ente los movimientos musicales más importantes de los últimos años, desde el jazz al funk, pasando por el blues y en algunas ocasiones el rock. Tras casi 40 años en el mundo de la música, sigue siendo uno de los saxofonistas más aclamados de su generación.



Ty

Nazioarteko hip hop artista, Erresuma Batuan jaioa.

Ty Erresuma Batuko hip hoparen munduan den rapperrik iraultzaileenetakoa da. Mito izateko jaio den MC baten adimena, gaitasuna eta indar bortitza irudikatzen ditu.

“Mercury Prize” sarirako izendatu dute, eta gutxitan lortzen den balentria lortu du: bere hiru albumetan ondare oso bat biltzea. Nortasun handikoa da, burutsua, eta izaera hori indartu egin dute mundu osoan eman dituen ikuskizun harrigarriek eta hainbat eta hainbat artistarekin (De La Soul, Tony Allen eta Pee Wee Ellisen neurriko artistekin) eginiko agerpenek.

Musikaren arloan Estelle, Scratch Perverts, Talib Kweli, Black Twang, Arrested Development, Bahamadia eta Zion I-rekin lan egin du, bai musikari gisa bai laguntzaile gisa ere. Urteotan guztietan eraman duen ibilbideak haren album bakoitzaren merkaturatzea desberdina eta berezia izatea eragin du; hori agerian geratu da, berriro ere, haren laugarren lanaren estreinaldian. Bere bizitzako aldirik ilunenetarikoak iradokiriko albuma izanik, jendetza handia erakartzeko prestatu zuen bere burua, hip hoparen “heriotzari” aurre egin eta haren berpiztea eragiteko. Horretarako errima probokatzailerak erabili zituen, ekoizpen magistrala eta harrotasun sentimendua. Ondorioz, 2010eko album aipagarrienetako bat bihurtu da. Tyk zera esan zuen: “Disko honekin adierazi nahi nuen jada aspertuta nagoela desberdina edo alternatiboa naizelako jendeak eskua bizkarretik pasatzen didan moduarekin. Jendeak nire beste aurpegia ikusiko du”. Tyk jendeari beti adierazi nahi diona da ondo dagoela hip hop musikaren bidez kontatzea historia, edozein dela ere historia hori.

Ty Londresko hegoaldean jaio eta hazi zen eta Slick Rick eta Doug E Freshen piztu zioten hip hoparekiko interesa, 1985ean. Lehenengo urteetan breakdance ikasi zuen, soinu eta ekoizpen ingeniarietza ikasketak burutu, eta errimak bortizki jaurtitzeko garatu zuen gaitasunari esker “IG Culture”, “MC MellÓ” eta “DJ Shortee Blitz”en pistetan agertu zen 90eko hamarkada erdialdean. Haren musikan hainbat kultur erreferentzia agertzen ziren, askotan barregarriak, baita arazo politikoak, era askotako istorioak eta enpatiazko sentsibilitatea herriekiko eta haien eguneroko bizipenekiko.

Tyren ahotsa bakarra eta freskagarria da hip hoparen munduan.

Haren prestakuntza urteetan “Jonzi D’s Apricto Jam” eta “DJ Pogo’s”ekin eginiko lankidetzak daude, “The Lyrical Lounge” hip hop klubean.

“Awkward on Big Dada” albumarekin egin zuen debuta, 2001. urtean. “Upward” albuma 2004an argitaratu zen eta haren albumik salduena izan zen. Urte hartan “Mercury Prize” sarietarako izendatu zuten, eta berehala lortu zuen nazioarteko musika munduan bere lekua –ederki merezitakoa– izatea.

Tyren hirugarren albumak “Closer” izenburua darama. Haren ohiko laguntzaileak, Drew Horleyk, koproduzitu zuen.

2010ean bere laugarren albuma merkaturatu zuen, “Special Kind of Fool”, BBE Records diskoetxearekin. Lan honetan hauek izan ditu, besteak beste, lankide: Erik Rico, Roses Gabor, rapper Sway, Carroll Thompson, Terri Walker, Soweto Kinch eta Basement Jaxx.



Ty



Artista del hip hop internacional, nacido en el Reino Unido.

Ty es uno de los más revolucionarios rappers en la escena de hip hop británica. Encarna la inteligencia, el talento y la ferocidad de un MC siempre destinado a convertirse en una leyenda.

Ha sido nominado al “Mercury Prize” y ha logrado la rara proeza de crear un legado a través de sus tres álbumes. Posee una gran personalidad, sabia, fortalecida por sus espectáculos asombrosos en todo el mundo y apariciones junto a un sin número de figuras de la talla de De La Soul, Tony Allen y Pee Wee Ellis.

Musicalmente ha trabajado con Estelle, Scratch Perverts, Talib Kweli, Black Twang, Arrested Development, Bahamadia y Zion I, tanto como músico, como colaborador. Su evolución a lo largo de estos años, ha hecho que cada lanzamiento de cada uno de sus álbumes sea distinto y especial y así lo demuestra el debut de su cuarto trabajo. Inspirado en uno de los períodos más oscuros de su vida, se preparó para atraer a las masas, desafiando a la “muerte” de hip-hop y la resurrección de su existencia, a través de rimas provocativas, la producción magistral y un sentimiento arrogante, que lo ha marcado como uno de los álbumes más grandes en el año 2010. Ty dijo: “Con este disco, estaba tratando de decir que estoy harto de que me den palmaditas en la espalda por ser diferente o alternativo. La gente va a ver un lado diferente de mí”. Ty trata siempre de hacer llegar a la gente que está bien contar la historia a través de la música hip hop, cualquiera que sea la historia.

Nacido y criado en el sur de Londres, su interés por el hip-hop llegó de Slick Rick y Doug E Fresh en 1985. Durante sus primeros años, aprendió breakdance, estudió ingeniería tanto de sonido como productor, y desarrolló la capacidad de ofrecer rimas ingeniosas con una ferocidad que lo llevó a aparecer en las pistas de “IG Culture”, “MC Melló” y “DJ Shortee Blitz” a mediados de los años 90. En su música se hacía diferentes referencias culturales, a menudo hilarantes, también a problemas políticos, historias diversas y una sensibilidad empática con los pueblos y sus experiencias de cada día.

Ty sigue siendo una voz única y refrescante en el hip hop.

Durante sus años de formación, también se incluyen colaboraciones con “Jonzi D’s Apricto Jam” y “DJ Pogo’s” en el club de hip-hop “The Lyrical Lounge”.

En el año 2001 debutó con su álbum “Awkward on Big Dada”. Su álbum “Upward” fue editado en el año 2004 y fue su álbum más vendido. Durante ese año recibió la nominación a los premios “Mercury Prize” y rápidamente se ganó un lugar, bien merecido, en la escena musical internacional.

Su tercer álbum se tituló “Closer”. Fue coproducido por su colaborador habitual, Drew Horley.

En 2010 salió al mercado su cuarto álbum, “Special Kind of Fool”, con el sello discográfico BBE Records. En este trabajo han colaborado Erik Rico, Roses Gabor, rapper Sway, Carroll Thompson, Terri Walker, Soweto Kinch y Basement Jaxx, entre otros.

06

Gabon, Piazzolla (Tangoa museoan)

Bilboko Guggenheim Museoa - Abandoibarra etorbidea, 2

22:00etatik 02:00etara

A) Quinteto Porteño de Marcelo Mercadante - Emanaldiak: 22:00 eta 00:00

B) Cuarteto Milonguero Fabián Carbone - Emanaldiak: 23:00 eta 01:00

A) Quinteto Porteño de Marcelo Mercadante



Quinteto Porteño Marcelo Mercadantek bere musika proiektuari itxura emateko zuen beharraren ondorioz sortu zen. Proposamen estetiko hau tango klasiko batzuk aukeratzean oinarritzen da. Horietako bakoitzak Buenos Airesko musikan diren estiloetako bat ordezkatzeko du eta bai interpretazioari dagokionez bai moldaketei dagokienez ere sortu ziren garaiko espirituari eutsi nahi diote, beren ikuspegia eta gaurkotasuna eranstean saiatuz. Quinteto Portēñorentzat funtsezkoa da, baita ere, Astor Piazzolla konposatzailearen obrak interpretatzea; Piazzollak, izan ere, XX. mendeko tangoa eta herri musika irauli zituen, eta haren obrak jada ezinbestekoak dira edozein tango

errepertoriotan. Eta funtsezkoa da haienentzat, batez ere, beren obra propioak sortu eta interpretatzea, horrela, eta egungo beste konposatzaile batzuekin batera, musika horri, tangoari, jarraipena eman eta aberasten segitzeko.

Dantzako bikotea: Silvia Lezcano eta Vicenç Arranz

B) Cuarteto Milonguero Fabián Carbone

Fabián Carbone Cuarteto taldeak Río de la Platako memoria berpizten du, intimoak bezain tango girokoak diren bere soinuekin. Pianoak, bandoneonak, kontrabaxuak eta bibolinak, tangoetan ohiko orkestraren oinarritzko soinu eta genero hori interpretatzeko garaian ezinbesteko lagun diren musika tresnek, XX. mendeko Buenos Airesera garamatzate: han garatu zen tangoa, eta handik zabaldu zen mundu osoko musika auditoriumetara. 2006an abiatu zen proiektua, "Tangoaren urrezko hamarkadaren" arte ondarea berreskuratu nahirik. Hamarkada hori berrogeiko hamarkada izan zen: orduan lortu zuen generoak egun eredu den interpretazio heldutasuna. Musika herrikoia eta landuaren arteko bateratzea islatzen da haien kontzertuetan.

Dantzako bikotea: Mariano Otero eta Alejandra Heredia

C) Tangoko bikoteen agerraldiak izango dira gau osoan

- Sebastián Giménez eta María Inés Bogado (tangoko munduko txapeldunak)
- Andrea Balllesterio eta Martín Pargana

D) Astor Piazzolla eta Buenos Aires bideoa

Gardel Jaialdiak eginiko programa, Buenos Aires hiriko gobernuaren laguntzaz.

06

Buenas noches, Piazzolla (Tango en el Museo)

Museo Guggenheim Bilbao - Avenida Abandoibarra 2

De 22:00 h a 02:00 h

A) Quinteto Porteño de Marcelo Mercadante - Actuaciones: 22:00 h y 00:00 h


B) Cuarteto Milonguero Fabián Carbone - Actuaciones: 23:00 h y 01:00 h

A) Quinteto Porteño de Marcelo Mercadante

El Quinteto Porteño nace con la necesidad de Marcelo Mercadante de dar forma a un proyecto musical propio. Esta propuesta estética se basa en la elección de algunos tangos clásicos, cada uno de ellos exponentes de diferentes estilos de la música de Buenos Aires y, tanto en la interpretación como en los arreglos, ser fiel al espíritu con el que fueron creados, intentando aportar su propia visión y actualidad. Para el Quinteto Porteño son básicas, también, la interpretación de obras del compositor Astor Piazzolla, quien dio un vuelco importantísimo dentro del tango y de la música popular del siglo XX y cuyas obras son ya parte indispensable dentro de cualquier repertorio tanguero. Y especialmente, la creación e interpretación de obras propias, intentando de esta manera y junto a otros compositores de la actualidad, dar continuidad y enriquecer esta música, el tango.

Pareja de baile: Silvia Lezcano y Vicenç Arranz

B) Cuarteto Milonguero Fabián Carbone



Fabián Carbone Cuarteto refresca la memoria rioplatense con una sonoridad tan íntima como tanguística. El piano, el bandoneón, el contrabajo y el violín, matriz sonora de la orquesta típica y cómplices ineludibles a la hora de interpretar este género, nos introducen en el Buenos Aires del siglo XX, donde el tango se desarrolla hasta llegar a los auditorios de música de todo el mundo. En el año 2006 comienza este proyecto con el fin de recuperar la herencia artística de la "Década de oro del Tango", la del cuarenta, donde el género alcanza una madurez interpretativa que hoy es un referente. La

fusión entre lo popular y lo culto se refleja en sus conciertos.

Pareja de baile: Mariano Otero y Alejandra Heredia

C) Intervenciones de parejas de tango a lo largo de la noche

- Sebastián Giménez y María Inés Bogado (campeones mundiales de tango)
- Andrea Balllesterio y Martín Pargana

D) Vídeo Astor Piazzolla y Buenos Aires

Programa confeccionado por el Festival Gardel con la colaboración del Gobierno de la ciudad de Buenos Aires.

07

Sustraietatik (Txalap.art)

Deustuko Unibertsitatea - Unibertsitateen etorbidea, 24

20:30etik 02:00etara

A) Kirkit, B) Txan magoa, C) Mikel Markez, D) Napoka Iria eta E) Ertza Antzerki Dantza

A) Kirkit

Emanaldiak: 20:30 eta 23:30



Kirkita nomadek erabiltzen duten tresna da, irazkian tapizaren hariak orraztu eta elkarri lotzeko; hori egitean soinu berezi bat sortzen da, eta soinu hori da izenaren jatorria. Kantuaren nomadak dira: mundua mundu denetik gizadiak sortu dituen musika eremuetan barrena bidaiatzen dute, beren ahotsaren bidez mintzo direlarik.

B) Txan magoa

Emanaldiak: 21:30 eta 00:30

Haren magia nabarmentzen da, bai taularatzeko modua zaintzen duelako bai aukeratzen duen magiagatik ere. Jendea hunkitzea du helburu, bizi garen munduari buruz hausnartzera garamatzan umore adimentsua ahaztu gabe.

C) Mikel Markez

Emanaldiak: 22:00 eta 01:00



Oraindik ere oholtza gainean jarraitzen duen bere belaunaldiko kantarietako bat da. Lehen grabazioa 1989an argitaratu zuen, eta ibilbide interesgarria egin du geroztik: kantak sortu ditu, interpretatu ere bai, beste interpretatzaile batzuekin lan egin du... Kantaren gurpilari eragiten darrai, biraka segi dezan, beti gure ametsak elikatzen.


D) Napoka Iria

Emanaldiak: 21:00 eta 00:00

Euskal musikaren agertokian beren txokoa egina dute, formatu akustikoan egiten duten zuzeneko hunkigarri eta intimistari esker... Zuzeneko horrek harrapatu egiten gaitu, ez gaitu hotz uzten, pixkanaka gorantz egiten duten konposizioei esker: erabateko isiltasunetik abia daitezke, benetako energia eztanda batean amaitzeko.

E) Ertza Antzerkia Dantza

Emanaldiak: 22:30 eta 01:30



Asier Zabaletak Ertza Konpainia sortu zuen 2004an, esparru berri bat ireki eta bertan lanak sortzeko hainbat diziplina artistikoren –hala nola dantzaren, antzerkiaren, arte plastikoaren edo ikus-entzunezko hizkuntzaren– arteko elkarrekintzaren bidez. *Act of God* ikuskizuna aurkeztzen dute. Ikuskizun horrek erlijioari eta Jainkoaren esanahiari buruzko hausnarketa proposatzen du.

07

Desde las Raíces (Txalap.art)

Universidad de Deusto - Avenida de las Universidades 24

De 20:30 h a 02:00 h

A) Kirkit, B) El Mago Txan, C) Mikel Markez, D) Napoka Iria y E) Ertza Teatro Dantza

A) Kirkit

Actuaciones: 20:30 h y 23:30 h

Kirkit es un utensilio que utilizan los nómadas para peinar y unir los hilos del tapiz en la urdimbre produciendo un sonido característico que da origen a su nombre. Son nómadas del canto, viajando por los diferentes parajes musicales que la humanidad ha creado desde el principio de los tiempos expresándose a través de su voz.

B) El Mago Txan

Actuaciones: 21:30 h y 00:30 h



Su magia se distingue tanto por su cuidada puesta en escena como por la selección de la magia que realiza. Su objetivo es emocionar al público, sin olvidar el inteligente humor que hace reflexionar sobre el mundo en que vivimos.


C) Mikel Markez

Actuaciones: 22:00 h y 01:00 h

